

Asisko gutuna

2011ko otsaila. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin,

anaitasunez bizi

28. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Zer esanahi edo gaurkotasun dauka senidetasun hitzak? Hitz horrek biltzen du Asis Sareko laugarren printzipioaren edukia. Eta 28. gutun honek gai hori garatzen du, eta oraingoan hori egin barkamenaren, eta barkamenak bakearekin duen harremanaren, ikuspuntutik egiten du. Nola partekatu eta bilatu ahal da senidetasuna, giza duintasunean? Nola egin nork bere burua senide, nola sentitu lagun hurko, edo nola eraiki

dezake bakea, horretan barkamenaren dimentsioa sartu gabe?

Asko ditugu geure buruari egin beharreko galderak. Zalantza bide da bila hasteko. Hain zuzen horregatik dugu hasi berria Asis Sarean "Zalantzagunea". Toki horretan galderak egiten ditugu eta erantzunak entzun. Bila ibiltzea galderak egitea da, erantzunen atzetik ibiltzea, eta erantzunak gure bidera etorri zain egoten jakitea.

Gogoetarako gaia

Barkamena, bakea egiteko

Eguneroko gorabeheretan, familiako hausturetan, nazioak zatitzen dituzten gatazketan ez dago ezer, zauri eta zapalkuntzen oroipena baino iraunkorragorik. Gorde egiten ditugu zapalkuntza guztiak eta beraiei lotuak gelditzen gara, geurongan erresumina eta iraina pilatuz.

Barkamena eskatzeak ez du kentzen egindako kaltea, baina ondorio garbitzaile eta aldatzailea du, bai kaltea eragin zuenaren eta bai jasan zuenaren barne-barnean. Barkatzeak gorrotoaren eta haserrearen kateetatik askatzen gaitu, pertsonak duen alderik onenarekin komunikazioan jartzen, eta erresuminaren, laidoaren eta gorrotoaren zama astunetik libratzen. Barkatzeak lagundu egiten du zauriak sendatzen, biktima-sentimendua gainditzen eta norbere bizitza eraikiz berregiten. Pertsona-mailan, barkamena eskatzeak eta emateak ondorio garbitzaile eta askatzailea du; elkarre mailan, berriz, ondorio eraikitzaile eta baketzatzailea. Barkatzeak, errespetuan eta elkar onarpenean oinarritutako orainaldi eta etorkizun eraikitzailea sortzen du.

Milango gotzain Ambrosio doneak esan zuen IV. mendean: "Egin lehenik zeuengan bake-lana, horrela, zeuok baketuak egonik, besteei bakea eman diezaiezuen". Gizarte berradiskidetu bat eragin ahal izateko, gutako bakoitzak lehenik bere baitan hasi behar du bake-lana. Utziezinezko betebeharra da barkamena bakea egiteko, baina aldi berean borondatezkoa.

Baina barkatzea ez da erraza. Sufrimendua eta umiliazioa handiak eta mingarriak direnean, zaila egiten da barkatzea. Barkamen-ekintza txikiak irakats diezagukete bidea. Barkatu ezin dugunean, lagungarri dugu zenbat aldiz barkatu behar izan diguten gogoratzea. Gure bihotz kaskarrak asko zekien Frantziskok esaten digu: etsaiak maitatu ezin ditugunean, gutxienik ez diezaiegula gaitzik gaitz orde itzuli. Gehiago egin ezin dugula sentitzen dugunean, soilik geure ezina Jainkoaren eskuetan uztea gelditzen zaigu, eta elkarren alde otoitz egitea, horrela nolabait bakearen zerbitzari izan gaitezen.

Ebanjelioko testua: Ez 36, 24-28

Nazio eta herrialde horietatik guztietatik bilduko zaituztet, eta zeuen lurraldera eramango. Ur garbiz zipriztinduko zaituztet eta garbi geldituko zarete; zuen kutsadura eta idolatria guztietatik garbituko zaituztet.

Bihotz berria emango dizuet eta espiritu berria

ezarriko: harrizko bihotza kenduko dizuet eta haragizkoa emango. Neure espiritua ezarriko dut zuengan, nire legeen arabera jokatzeko eta nire aginduak arretaz betetzeko gai bihurtuz. Zuen arbasoei eman nien lurraldean biziko zarete; nire herri izango zarete eta ni zuen Jainko.

Frantziskotar espiritualtasuna

“Goretsia, ene Jauna, zure amodioz barkatzen dutenengatik” – idazten die Frantziskok biziki elkarren kontra jarriak zebiltzan Asisko gotzain eta “podestá-ri” (AEgKt 10).

Frantziskok proposaturiko barkamenak Jesus eta haren maitasuna du iturri, arrazoi eta hasiera; bihotzez errukitzea, harremanetan doakotasun osoa eta barkamen eskuzabala izango dira barkamen horren fruitu. Frantziskok dioenez, soilik Jesus eta haren besarkada lagun dugula, saia gaitzke senideari beti eta baldintzarik gabe onarpena eta barkamena ematen.

Goratzarre abestia

Zabal bihotzok errukirako;
sendo bihotzok borrokarako.
Gizon-emakume berri / kondairaren eragile,
gizatasun berriaren / oinarri eta egile.
Gizon-emakume berri / arriskuen onartzaile,
fede bizitzan ausarta, / zailtasunetan garaile.

Gizon-emakume berri, / esperantzaren gudari,
zuzentasunaren gose-egarri, / egi-bidean bidari.

Gizon-emakume berri, / ez kate eta ez lokarri,
Askatasunaren jabe, / eta askatasun azkarri.

Gizon-emakume berri, / mugaz gaindiko maitale,
elkar artean oretuz / arraza eta lurralde.
Gizon-emakume berri, / pobreen artean pobre,
hauekin elkar-banatuz / etxeko ogi ta aterpe.

Gutuneko azken hitzak

Zertan ez dut arrazoi osoa? Zertan du besteak arrazoi apur bat? Barkatzeak, eta elkarri kalte eginez emandako historiaren inertzia aldatzeak, nork bere buruari beldurrik gabeko galderak egitea eskatzen du.

2011ko martxoko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate martxoko erreferentzia guztiak:

1 Mk 10,28-31	8 Mk 12,13-17	15 Mt 6,7-15	22 Mt 23,1-12	28 Lk 4, 24-30
2 Mk 10,32-45	9 Mt 6,1-6.16-18	16 Lk 11,29-32	23 Mt 20,17-28	29 Mt 18,21-35
3 Mk 10,46-52	10 Lk 9,22-25	17 Mt 7,7-12	24 Lk 16, 19-31	30 Mt 5,17-19
4 Mk 11,11-26	11 Mt 9,14-15	18 Mt 5,20-26	25 Lk 1, 26-38	31 Lk 11,14-23
5 Mk 11,27-33	12 Lk 5,27-32	19 Mt 1,16.18-21.24 ^a	26 Lk 15,1-3.11-24 ^a	
6 Mt 7,21-27	13 Mt 4,1-11	20 Mt 17,1-9	27 Jn 4,5-11.19b-	
7 Mk 12,1-12	14 Mt 25,31-46	21 Lk 6,36-38	26.39 ^a 40-42	

Oharrak

·Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hilerio hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua asissarea@arantzazu.org helbide elektronikora.

·Asis Sarearen web gunean Gutun honen edukietan sakontzeko lanabes hau aurkituko duzu: “Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldea lan egiteko iradokizunak”.

·Diru-ekarpenak egiteko kontu zenbakia: 0182 0326 15 0201516844 (BBVA).

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2011ko otsaila. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin.

anaitasunez bizi

28. zenbakia

Gure desira eta helburu funtsezkoenetako bat da bakea bizitzea. Baina era guztietako interesez beteak gabiltza, eta horiek oztopatu egiten digute geure buruarekiko eta besteekiko bakea bizi ahal izatea. Besteei barkatu, geure buruari barkatu, besteen barkamena onartu: horiek ditugu eman beharreko lehen urratsak, senidetasunean biziz, bidea elkarrekin egiteko beharrezko dugun bake bizitzara iristeko.

Barkamena, bakea egiteko

Hasteko pentsa ezazu, zeure bizitzako zein puntutan behar duzun bakea, zeintzuk diren bakea galarazten dizuten gertaerak, momentuak eta pertsonak. Baina ez gara edozein bakez ari, bihotzeko bakeaz baizik. Soilik bihotzeko bakea bilatuz eta desiratuz izan gaitzeko bakegile. Eta bigarrenaz pentsa ezazu zeure buruari eta besteei barkatzeko eta besteen barkamena onartzeko sentitzen dituzun zailtasunetan.

Eta barkamena orduan emango da bere betean: apaltasunetik sortzen denean, besteari nahiz neure buruari errespetua galdu diodala onartzen dudanean, neure burua gehiagotzat ez baina berdintzat, eta bakea berreskuratzeko barkamen horren premian, sentitzen dudanean.

Zenbat aldiz ez zara barkatua sentitu, edo ezin izan duzu barkatu harrokeriagatik? Ahalegin zaitetz bihotzeko bake hori sentitu duzun momentuak gogoratzen, eta heldu beraiei barkamena emateko eta hartzeko. Hauta ezazu libre izatea eta ez zeure lotura eta erresuminen gatibu izatea.

Geure barnean libre izateko gurutzatu beharreko hesi bat da barkamena. Barne-askatasun hori gabe ezin diegu besteei bakerik eman, ez eta bakezko mundurik eraiki ere. Jakinduria eta ausardia dutenak dira barkatzaile; soilik benetako maitasuna duenak barkatzen du.

Jar ezazu bakea zeuregan, zeure familian, zeure lanean. Hasi gertuen dituzunengandik eta sumatuko duzu nola doan aldatzen zeure bizitza eta ingurukoena. Apurka-apurka eta denen artean lortu ahalko dugu bakea, faltan sentitzen, irrikatzen eta amesten dugun bakea.

“Zuek nire herri izango zarete eta ni zuen Jainko”

Egizu otoitz testuaren bidez, entzun Jainkoari eskaintzen dizuna. Guztioi egiten digu dei, ez du inor utzi nahi lurretik kanpo, guretzat nahi dituen dohainetatik kanpo.

Utz iezaiozu zeure bihotz gogor harrizko hori bestelakoa egiten: haragizkoa, txeraz eta maitasunez betea, besteei irekia bizitzeko gai dena, beste mundu bat egiteko gaitasuna duena, mundu horretan besteari begiratzeko modua bestelakoa izango delarik eta bertan besteari tokian jartzeko gai izango garelarik, horrela bestea nirekin berdintzat eta ni bezala Jainkoaren herriko partaidetzat ikus dezadan.

Eska diezaiogun Jainkoari bere espiritu berria, barkamenaren eta maitasunaren agindua betetzera eramango gaituena.

“Goretsia zu, ene Jauna, zure amodioz dutenengatik barkatzen”

Frantzisko doneak, bai, egin zuen aurkikuntza hau: barkamenetik bakarrik egin daitekeela senidetasuna; ez, ordea, edozein barkamenetik, Jainkoagandik datorrenetik baizik. Frantziskok esaten digu eska diezaioguna Jainkoari, guk barkatu ezin duguna Berak gure ordez barkatzea; ez dago barkatzeko beste modurik, hain baikara eskasak... Jar zaitetz Jainkoaren aurrean eta utzi Hark besarka zaitzan. Emango dizu barkamena eta irakatsiko dizu barkamena ematen eta hartzen, eta emango dizu berriro Bere bakea.

“Zabal bihotzok errukirako”

Egin otoitz kantuaren bidez. Ez zaizu bihotza zabaltzen?

Gizon-emakume berriz egindako gizadia sortu nahi dugu Jainkoarekin: berdinen artekoa, zuzenbidezkoa eta libre.

Esan diezaiogun Jaunari, gizon-emakume berriak behar ditugula, barkatzeko eta Hark eragina izateko gai den bihotza dutenak; eta har gaitzala kontuan gizatasun berri hori, maitasunezko senitarte berri hori, eraikitzeke dugun gogoan.

Soilik barkamenaren bidez eraikiko dugu MAITASUN ETA BAKEZKO mundua.